



KULTURA SAILA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Kultura Sailburuordetza
Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Viceconsejería de Cultura
Dirección de Promoción de la Cultura

Kulturaren Euskal Behatokiari 2021 eta 2022 urteetan laguntza teknikoa egiteko kontratua arrazoitzeko Kultura Sustatzeko zuzendaritzak eginiko oroitza.

1.- Sarrera

Kulturaren Euskal Behatokiak, EAEko kultura-alorreko informazioa antolatzeko, baliozkotzeko eta sortzeko erreferentzia denez (Kulturako Sailburuaren Agindua, 2009ko ekainaren 11koa, Kulturaren Euskal Behatokia arautzen duena, 2.a artikulua), Kulturaren Euskal Kontseiluarekin, Erakundearteko Batzordearekin eta Kulturaren Euskal Planeko (gaur egun Kultura Auzolanean) batzorde bereziekin lankidetzan, euskal kulturaren egoera, bere azpiko sektoreena eta gizartearen eskakizunak aztertzen ditu. Hori dela eta, jarduera-plana egiten du urtero, errealitate hartan oinarritua, eta hura kulturaren sektoreetan gauzatzeko espezializazio tekniko handia behar da, sektoreak zeinak egun COVID-19k gogor jotako esparruak diren. Hala, azterlanek eta txostenek kultura sektorearen gaur egungo beharrei eta proposamenei erantzuten diete, zeinak urtetik urtera eguneratzen eta berrorientatzen diren.

Kulturaren Euskal Behatokia Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren mendeko zerbitzu espezifiko da, Euskal Autonomia Erkidegoko kulturaren alorrean informazio, dokumentazio eta ikerketa zentro moduan jardungo duena. Behatoki baten funtzioa da informazio baliagarria lortzea eta aztertzea, bai kultura-sektoreei bai kulturaren alorreko estrategia politikoak definitzeko ardura dutenei orientazioa ematea helburutzat hartuta.

Kulturaren gaineko begirada estrategikoa sendotzea eta halaber, euskal kultura-sistemaren I+G+b lerroak formulatu eta egokitzea helburu duten azterketen eta ikerketen zereginak izango dira kultura-eztabaidetan abangoardiako gaiak jorratzea, kudeaketa-eredu berriak ezagutzea, kultura finantzatzeko bideak aztertzea eta joerak identifikatzea. Hori guzti hori garatzeko, hainbat teknika kualitatibo erabiliko dira.

Testuinguru honetan eta 2019-2020 epealdirako kultura plangintzarako tresnetariko bat izaki, bitarteko hau neurrira ekarri eta egokitu beharra ikusi da eta prozedura irekiaren bidezko zerbitzu kontratu bidez gauzatzeari heldu.

2.- Kontratazioaren xedea eta justifikazioa

Horretarako, hurrengo txostenak eta eginkizunak planteatzen dira:



- 1.- Aholkularitza, laguntza teknikoa eta estatistikak hobetzeko proposamenak hurrengo operazioetan: Arte eta Kultur Industriak Estatistikak (edizio bat), Sormenezko Industriak Estatistika (edizio bat), Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturaren Estatistika (edizio bat) eta Panelak (dagokien edizioetan).
- 2.- Arte eta Kultur Industriak eta Sormenezko Industriak atalei dagozkien txosten sektorialak eta zeharkakoak proposatu eta egin (edizio bat).
- 3.- Analisiak egin eta proposatu eta gauzatu Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturaren estatistikari dagozkion txostenak (edizio bat).
- 4.- EAEko kultura eremuko enpresa, enplegu eta lan merkatuaren txostena proposatu eta egin (edizio bat).
- 5.- Beste iturri batzuetatik egindako azterlana eta aldagaien proposamena (edizio bat).
- 6.- Operazio estatistiko bakoitzaren oinarrizko adierazleak proposatu eta gauzatu.
- 7.- Kultura adierazle hautatuak proposatu eta gauzatu (urtero).
- 8.- Kultura sektorearen egituraketari dagozkion txostenak proposatu eta gauzatu, bai zeharkako ildoetan nola sektorialetan, beti ere, nazioarteko joerak, sektorearen erronkak eta euskal errealitatearen beharrak oinarri hartuta (7 txosten urtero).
- 9.- Arte eta Kultura Industrien Panelari dagozkion buletin eta emaitzen analisi-txostenak egitea (urtean behin). Baita, Kultura Ohituren Panelarenak ere (sei hilabetero).

3. Kontratatu beharra

Aipatu eragiketek eskatzen duten azterketen izaera eta berezitasuna aintzat hartuta, gauzatzeko behar diren ikerketak eta analisiak ezin ditu egin Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak. Zehaztutako eragiketei dagozkien zereginek, hau da, analisiek, adierazle-proposamenek, txostenek, buletinek, berme guztiekin aurre egin ahal izateko, zeregin horietan espezializatutako eta kualifikazio handiko zerbitzu tekniko bat behar dute.

Kontratu honen helburua da Administrazioaren ohiko jardueratik kanpo dauden lanak burutzea, eta horiek gauzatzeko ez dakar esleipendun enpresekin loturiko pertsonen Administrazioaren berezko pertsonalak normalean egiten dituen antzerako eginkizunak betetzea, 2014ko apirilaren 29ko Gobernu Batzordeko erabakiarekin bat etorritik.



Kontsiderazio hauek oinarri hartuz eta Kulturaren Euskal Behatokiaren funtzionamenduaren lan-lerroetatik, ikerketa, hausnarketa eta kontrastea eta informazioa kudeatzeko sistemaren garapena alegia, eratorritako beharrei erantzuteko proposatzen da kontratazioa hau.

4.- Esleipen-prozedura

9/2017 Legearen 156 artikulua betez, -azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena (aurrerantzean SPKL)-, prozedura irekia egingo da, interesa duen orok proposamen bat aurkeztu ahal izan dezan. Horixe da prozedurarik egokiena kontratazio publikoaren printzipioak erabat aplikatzeko, publizitatearen, lehiaren, gardentasunaren, berdintasunaren eta lehia askearen eraginkortasuna bermatuta gera dadin.

Halaber, SPKLren 146.2 artikuluari jarraikiz, balorazio-irizpide bat baino gehiago ezarri dira, esleipena zehazten duen faktore bakarra prezioa izan ez dadin

Ez da zentro berezientzako edo txertatze-enpresentzako kontratua, eta haren gauzatzea ez dago txertatuta enplegua sustatzeko programen esparruan.

5.- Kontratazio-organoa

Kontratazio-organoa Kulturako sailburuordea da, hala jasotzen baitu 3.2 h) artikuluan apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duenak. Dekretu horren bidez, kontratazio-eskumenak ematen zaizkie organoei, esleituak dituzten jarduera-eremuei dagozkien alorretan (2017ko apirilaren 21eko EHAA, 76. zk.).

6.- Prestazioaren sailkapena

SPKLren 17. artikulua arabera, zerbitzu-kontratua da, 8. kategoriaren barruan "Ikerketa eta garapen zerbitzuak".

7.- Erreferentzia-zenbakia (CPV)

Dagokion CPV kodea hau da: 73100000-3 "Ikerketarako eta garapen esperimentalerako zerbitzuak".



8.- Erreferentzia-zenbakia (CPA)

Dagokion CPA kodea hau da: 72.20.19. "Ikerketarako eta garapen esperimentalerako zerbitzuak beste gizarte-zientzia batzuetan".

9.- Kontratuaren beste espezifikotasun batzuk

Enpresak konpromisoa hartu behar du azterketak egoki bideratzeko behar diren giza baliabide eta baliabide material guztiak jartzeko; halaber, enpresari dagokio harreman juridikoak izatea operazioa garatzeko behar den lantaldeko pertsonekin. Dena dela, ez Kulturaren Euskal Behatokiak, ez Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak ez dute inolako loturarik langile horiekin (ez lan-harremanik, ez kontraturik, ez harreman funtzionalik, ez bestelako loturarik), ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez amaitu ondoren.

Administrazioaren eta enpresaren arteko harreman orokorrak administrazio-baldintzen orrian xedatutakoaren arabera gauzatuko dira.

10.- Lanen jarraipena

Kulturaren Euskal Behatokiari dagokio pertsonala izendatzea, lanen jarraipen egokia bideratzeko. Izendapen horiek egiteko prozedura eta egutegia zehaztu behar dira, Kulturaren Euskal Behatokiaren eskakizunen arabera.

Horiek horrela, Kulturaren Euskal Behatokiak bere gain hartuko du enpresa esleipendunak egingo dituen lan guztien koordinazioa eta jarraipena. Horren helburua da lan-prozesuen koherentzia zaintzea, gauzatu beharreko zereginen eraginkortasuna, efizientzia eta kalitate-maila irizpidetzat hartuta.

Halaber, enpresa esleipenduna Kulturaren Euskal Behatokiaren agindura egongo da, emandako informazioa argitzeko edo/eta osatzeko, Kulturaren Euskal Behatokiak egoki iritzi bezala.

11.- Gauzatzeko epea

Egitekoak gauzatzeko epea hogeita hiru hilabetekoa da, kontratua sinatutako egunetik kontatzen hasita. Nolanahi ere, 2022ko abenduaren 31n amaituko da.

12.- Prezioa eta ordaintzeko modua zehaztea

Kontratututako xedearen guztirako prezioa 242.000,00 eurokoa izatea erabaki da (BEZa barne), 200.000,00 euro, gehi BEZa, 42.000,00 euro. Beraz, kontratuaren kopuru balioetsia 200.000 euro (BEZa gabe).



Lizitazio-aurrekontuaren kalkulurako kontuan izandako kostu eta gastuak.

GASTU ZUZENAK	
Pertsonal gastuak	142.500,00
ZEHARKAKO GASTUAK	
Ekoizpena	26.000,00
Garraioa	7.500,00
ENPRESA ONURA	
Onura	24.000,00

Kalkulua

Lizitazio-aurrekontua	200.000,00
Aurreikusitako aldaketen kopurua	Ez dagokio
Lizitatzailleei ordaingarri diren sari edo primen kopurua	Ez dagokio
Edozein aukera-moten kopurua	Ez dagokio
Luzapena	Ez dagokio
KOPURU BALIOETSIA	200.000,00

Kopuru hori aurrekontu-kontsignazio honi egokituko zaio:
21.0.1.10.12.0122.1.238.99.45136.011/F eta ondorengo aurreikuspenaz:

EPEA		ORDAINKETAK		BEZik gabe	BEZ	BEZa barne		
2021	11 hil.	2 hilabete	%12,50	25.000,00	5.250,00	30.250,00	121.000,00	%50,00
		5 hilabete	%12,50	25.000,00	5.250,00	30.250,00		
		8 hilabete	%12,50	25.000,00	5.250,00	30.250,00		
		11 hilabete	%12,50	25.000,00	5.250,00	30.250,00		
2022	12 hil.	14 hilabete	%12,50	25.000,00	5.250,00	30.250,00	121.000,00	%50,00
		17 hilabete	%12,50	25.000,00	5.250,00	30.250,00		
		20 hilabete	%12,50	25.000,00	5.250,00	30.250,00		
		23 hilabete	%12,50	25.000,00	5.250,00	30.250,00		
EPEA (2021-01-31 / 2022-12-31)		%100,00		200.000,00	42.000,00	242.000,00	%100,00	

KOPURU BALIOETSIA = 200.000€

Ordainketak esleipendunak dagozkion dokumentuak aurkeztu ostean eta egindako lan guztiak Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak onetsi ondoren egingo dira eta ondorengo epeetan:



- 1. ordainketa: kontratua sinatu eta 2 hilabetera %12,50 ordainduko da.
- 2. ordainketa: kontratua sinatu eta 5 hilabetera %12,50 ordainduko da.
- 3. ordainketa: kontratua sinatu eta 8 hilabetera %12,50 ordainduko da.
- 4. ordainketa: kontratua sinatu eta 11 hilabetera %12,50 ordainduko da.
- 5. ordainketa: kontratua sinatu eta 14 hilabetera %12,50 ordainduko da.
- 6. Ordainketa: kontratua sinatu eta 17 hilabetera %12,50 ordainduko da.
- 7. Ordainketa: kontratua sinatu eta 20 hilabetera %12,50 ordainduko da.
- 8. Ordainketa: kontratua sinatu eta 23 hilabetera %12,50 ordainduko da.

Kasu guztietan, epe bakoitzean egin beharreko lanak eta epe bakoitzerako adierazitako portzentajeari dagokion faktura aurkeztu ondoren.

Kontratua gauzatzeko epea kontuan hartuta, ez da aurreikusten konturako ordainketarik egitea.

13.- Kaudimen-irizpideak

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izateko, kontratu mota dela-eta eta egin beharreko zerbitzuaren izaera eta edukia dela-eta, SPKLaren testu bateratuaren 87. eta 90. artikuluetan xedatutakoarekin bat, lehiatzen diren enpresei beren kaudimen tekniko eta finantzarioa erakuts dezatela exijitzea erabakia da, honela:

Kaudimen ekonomikoa:

Urteko negozio-bolumena, azken hiru urteko bolumen handieneko urteko zenbatekoa, 150.000 eurokoa edo handiagoa izatea.

Kopuru hori urteko gutxieneko bolumen gisa kalkulatu da, kontratatzaileak bere prestazioak gauzatzeko duen gaitasuna bermatze aldera. Nolanahi ere, ez da gainditzen SPKLren 87.1 a) artikuluan ezarritako muga, eskatutako gutxieneko negozio bolumenak ez baitu gainditzen kontratuaren balio zenbatetsia gehi erdiaren zenbatekoa

Era berean, bete egiten da 87.4 eskatutako kaudimena kontratuaren xedearekiko proportzionala izateko beharrari dagokionez; kasu honetan, xede horri lotuta egongo da eta xede horri egokituta, eta, bereziki, ez da oztopo izango enpresa txiki eta ertainen partaidetzarako, urteko gutxieneko negozio-bolumena zenbatekoa izan den kontuan hartuta.

Onartutako eta Merkataritza Erregistroan lagatako kontuen bidez frogatuko da datu hori, enpresariak erregistro horretan inskribaturik egonez gero, eta, bestela, inskribaturik egon behar duen erregistro ofizialean lagatako kontuen



bidez. Merkataritza Erregistroan inskribaturik ez dauden enpresariak urteko negozio-bolumena Merkataritza Erregistro berak legeztatutako enpresariaren inbentario eta urteko kontu-liburuen bidez egiaztatuko dute.

Kaudimen teknikoak:

Aintzat hartuta egin beharreko lanen edukia eta dimentsio praktikoa, horiek gauzatzeko kulturaren alorrean ageriko eskarmentua duen enpresa nahi da kontratatu, zeinaren jarduera profesionala kontratuaren xedearekin lotua baita. Hori dela eta, SPKLaren 90.1a) artikuluari dagokionez, honela frogatu beharko da kaudimen teknikoak:

- Kontratuaren xede diren eginkizunen pareko alorretan egindako lan edo zerbitzu nagusien zerrenda, azken hiru urteetakoak, haien zenbatekoa, egunak, hartzailea (publikoa nahiz pribatua) eta haien xedea adierazita. Hartzailea sektore publikoko entitatea denean, egindako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira; hartzailea pribatua denean, berriz, berak emandako ziurtagiri baten bidez, eta halakorik ez badago, enpresariaren beraren aitortpen baten bidez. Zein bere kasuan, ziurtagiri horiek kontratazio-organoari zuzenean helaraziko dizkio eskumena duen agintaritzak.

Gutxieneko betekizuna izango da bolumen handieneko urteko zenbatekoa, gutxienez, 70.000 eurokoa izatea.

Horren ordez, kaudimen ekonomiko eta finantzario zein teknikoak edo profesionalak badago egiaztatzerik hurrengo sailkapena aurkeztuta:

Taldea: L)	Azpitaldea: 3	Kategoria: A
------------	---------------	--------------

Kontratista sortu berria den enpresa izanez gero (hala iritzita bost urte baino gutxiagoko antzintasuna dutenak) kaudimen teknikoak egiaztatuko da pertsonal teknikoak edota unitate teknikoak (enpresaren parte izan ala ez) adierazita, batez ere, kalitate kontrolaren ardura dutenak adierazita. Horretarako, enpresaren gutxieneko profiltzat jotzen da teknikarien artean gutxienez goi-mailako tituludun bat izatea, Estatistikako edo Ekonomiako gradua (edo baliokidea) eta Soziologiako gradua (edo baliokidea) egiaztatzen duen goi-mailako tituluduna. Betekizun horiek egiaztatzeko, dagokion tituluaren edo ziurtagiriaren kopia bat emango da.

14.- Lan-programa

Ez da lan-programarik eskatzen.

15.- "C" gutun-azalean sartu beharreko agiriak. Irizpide subjektiboak

Aurkeztuko diren proposamen teknikoaren balorazio egokia egitea bideratzearen, esleitzeko irizpideak eta aurreikusitako haztatzeak aintzat



hartuta, lizitatzailleek "C" gutun-azalean sartu behar dituzte 17. ataleko 1. puntuko esleipen-irizpidearen arabera (balio-irizpenean oinarritutako irizpidea) baloratzen dena egiaztatzeko behar diren agiri guztiak, ahalik eta modu argienean eta zehatzenean. Zehazki, aurkeztu behar dira:

1. Emango den prestazioaren txosten deskribatzailea, proiektua ahalik eta gehien zehatzuz. Ildo horretan, dokumentazio horrek informazio hauek adieraziko ditu, gutxienez: ikuspegi metodologikoa, lanerako planaren deskribapen zehatza, emaitzak, proiektuaren kronograma, jarduerak gauzatzeko baliabideak, lantaldearen organigrama, eta lanen kalitatea bermatzeko prozeduren deskribapena.
2. Proposamena hobeto zehazteko baliagarritzat jotako beste edozein agiri, espedientea esleitzeko lagungarria izan dadin.

16.- "B" gutun-azalean sartu beharreko agiriak. Irizpide objektiboak

- 1.-. Proposamen ekonomikoa.

17.- Esleitzeko irizpideak

Proposamenak baloratzeko unean prezioa ez da esleitzeko faktore erabakigarri bakartzat hartuko; aitzitik, aurkezten den eskaintzaren kalitate teknikoa baloratzeari ere garrantzia emango zaio, egin beharreko zerbitzuaren elementu esanguratsua denez. Horretarako, batzuetan, beharrezkoa da irizpide ez-matematikoak aplikatzea, kontratazioan planteatutako helburuak lortzeko.

Horrela, eta SPKLren 145.1, 145.2 eta 145.3.g artikuluen arabera, balorazio-irizpide bat baino gehiago ezarri dira, irizpide ekonomiko eta kualitatiboak konbinatzen dituen hainbat esleipen-irizpide erabiliz eskaintzarik egokiena zehaztu ahal izateko, hau da, kalitate-prezio erlazio onena bermatzen duena.

Kontratu honek ondorengo helburuak digu oinarri:

a) Arteen eta Kultura Industrien, Sormenezko Industrien eta Finantzaketa eta Gastu Publikoa kulturen eragiketarako interpretatzea eta hobetzea sektorekako eta zeharkako txostenak, adierazleak eta optimizatzeko proposamenak eginez; b) Ohiturak, Praktikak eta Kontsumoa kulturen eragiketarako interpretatzea eta hobetzea sektorekako eta zeharkako txostenak, adierazleak eta optimizatzeko proposamenak eginez; c) Ezagutu zer pertzepzio duten Arteen eta Kultura Industrien Paneleko enpresek (negozioaren uneko egoerari, epe laburrerako itxaropenei eta testuinguruaren eta aldaketen analisiari buruzkoak) zein Kultura Ohituren Paneleko kontsumitzaile gazteek (EAEko kontsumitzaile gazteen kultura-ohiturak, gaur egungo kultura-praktikak, trantsizioak, aldaketak, joerak...).



Helburu horiek erdiestea eta haien izaera hain dira korapilatsuak, non beharrezkoa baita berme-mekanismoak izatea. Horiei, baina, irizpide objektiboak eta balio-judizioetan oinarritutako irizpideak biak ala biak erabilia baizik ezin izango zaie heldu.

Kontratazio-pleguetan ageri denez, eskaintzen kalitate teknikoa balio-judizioen bidez baloratzea planteatu da, hiru irizpide hauei jarraikiz:

1. Ikuspegi metodologikoa eta proposatutako lanen egokitasuna: Ikuspegi metodologikoan ezinbestekoa da metodologia misto bati txukun eta eraginkor heltzea, planteamendu kualitatibo eta kuantitatiboak dituena. Ikuspuntuak eta lan-sekuentzia kontratazioaren helburuetara egokituz.
2. Proposamenak duen zehaztasun maila: Proposamenean adierazten den metodologiari jarraikiz, garatu beharreko zereginak eta horiek gauzatzeko behar diren baliabideak xehetasunez zehaztu beharra dago. Horrela, proposatutako zeregin bakoitzerako tresnak eta teknikak eta horien koherentzia definitu beharko dira. Halaber, giza baliabideak eta baliabide teknikoak zehaztu behar dira.
3. Lanaren kalitatea bermatzeko prozedurak: Egin beharreko lanen kalitatea bermatuko duten parametroak zehaztu beharra dago, lanon koherentzia eta egiaztapena zainduz modulu zein txosten bakoitzean.

1.- Balio-irizpenean oinarritutako irizpidea:

A.- Eskaintzaren kalitate teknikoa (0-49 puntu)

Aurreikusitako zereginen oinarri metodologikoak eta egokitasuna aintzat hartuko dira, oro har, baita oinarri teknikoen orrian eskatutako baldintzak ere.

Irizpide horien balorazioa egiteko, puntuazio hauek kontuan hartuko dira:

1. Ikuspegi metodologikoa eta proposatutako lanen egokitasuna (0-20 puntu).
 - a. Ikuspegi metodologikoa (10 puntu)
 - b. Zereginen egokitasuna (10 puntu)
2. Proposamenak duen zehaztasun-maila eta lan taldearen organigrama (0-20 puntu).
 - a. Zeregin bakoitzerako tresnak eta teknikak (5 puntu)
 - b. Zereginen, tresnen eta atxikitako tekniken arteko koherentzia (5 puntu)



c. Bideratutako giza baliabideak eta lotutako zereginetikiko koherentzia (10 puntu)

3. Lanen kalitatea bermatzeko prozedurak (0-9 puntu).

2.- Irizpide objektiboak:

Irizpide objektiboen bidez ere baloratu nahi da:

A.- Eskaintza ekonomikoa. Interes publikoaren arabera baloratuko da eskaintza ekonomiko onuragarriena.

A.- Eskaintza ekonomikoa(0-51 puntu)

Eskaintza ekonomikoaren balorazioa egiteko, honako formula hau aplikatuko da:

Irizpide horren balorazioa egiteko proportzionaltasun-irizpidea aplikatuko da, hau da, proposamen hoberenari gehieneko puntuazioa emango zaio, eta gainerakoei haren arabera.

$$P = \frac{51 \times \text{Min.}}{\text{Of.}}$$

P= Lortutako puntuazioa

Min. = Eskaintza txikiena

Of.= Ebaluatzen den lizitzailearen eskaintza

Prestazioaren izaera kontuan hartuta, egoki irizten da eskaintza ekonomikoa jaisteko irizpideak jartzea. Ildo horretan, ez-normalizat edo proportziorik gabekotzat joko dira lizitzaileen aurrekontuen batez besteko aritmetikoa baino %15 gutxiagoko prezioak.

18.- Jabetza intelektualaren eskubideak

Kontratazioarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskuratzen ditu, halaber, eratzen diren datu-baseen ustiapen ekonomikoak eragin ditzakeen jabetza intelektualaren eskubideak, baita prestazioan sortutako dokumentuek eta elementuek eragin ditzaketenak ere (elementu bereizgarriak barne hartuta). Eskubide horiek dira erreproduktioari, banaketari, komunikazio publikoari, eraldaketari eta abarri dagozkienak eta ustiapen ekonomikoa ekar lezaketenak, mundu guztian, hizkuntza guztietan eta prozedura guztietan, legediak ezarritako data eta epeetan, jabari publikokoak izan arte, jabetza intelektualari buruzko araudiak xedatutako baldintzak eta mugak aintzat hartuta.

Kontratatik edo gauzatzean parte hartu duen edozein pertsona fisikok ezingo dute lana erabili beraiantzat, ezta besteei eman ere (ez osorik, ez



zatika), ezta argitaratu ere (ez osorik, ez partez). Dena dela, obligazio horiek ez betetzeak eragin ditzakeen kalte-galeren erantzulea kontratista izango da.

19.- Azpi-kontratazioa

Azpi-kontratazioa debekatuta dago.

20.- Behin-behineko bermea

Ez da eskatzen behin-behineko bermerik.

21.- Behin-betiko bermea

Bai. Esleipen prezioaren %5a BEZa kanpo.

22.- Berariazko baldintzen orrian aintzat hartzeko beste elementu batzuk

Kontratatutako lana egitean eta aurkeztean, genero-ikuspegia aintzat hartuko du; eta, hizkuntza eta irudiak erabiltzean, sexu-diskriminazioa eragiten duten elementuak saihestuko ditu, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, xedatutakoari jarraiki.

23.- Lanen zuzendaritza

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eskumena izango du agindutako lanak zuzentzeko, eta kontratazio-aldian sor daitezkeen gorabeherak bideratzeaz arduratuko da.

24.- Zatitan banatzea eta zenbakiak jartzea

Ez dagokio lotetan zatitzea kontratuaren xedeak jarduera guztien koordinazioa eta plangintza eskatzen dituelako, zeinak ezinezkoa izan litezke lotetan zatituz gero eta exekuzioa hainbat kontratisten esku geratuz gero.

25.- Prestazioen berme-epea

Kontratuaren xedearen izaera kontuan hartuta, ez da berme-eperik eskatzen, izan ere, esleipendunaren erantzukizuna kontratua amaitutakoan agortzen baita.



26.- Hartzeko epea

Bai. Hilabetekoa, kontratuaren xede diren lanak aurkezten diren egunetik kontatzen hasita.

27.- Kontratuaren luzapena

Ezin da kontratua luzatu.

28.- Ez-betetze partzialak

Ez-betetze partzialen kasuak ezartzea ez da egokia kontratua erabakitzeke helburuetarako.

29.- Aurrekontuko diru-izendapena

Kreditu egokia eta nahikoa dago aurrekontu-kontsignazio honetan:
21.0.1.10.12.0122.1.238.99.45136.011/F

30.- Zuzentzea edo egokitzea

Kontratua gauzatzen den bitartean, Administrazioak eskubidea izango du prestazioa zuzena dela egiaztatzeko eta prestazioa administrazio-klausulen agirietara eta esleipendunaren eskaintzara egokitzen dela egiaztatzeko. Ildo horretatik, esleipendunak adierazitako epearen barruan zuzendu edo egokitu beharko ditu nabarmendutako alderdiak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 9a

Aitziber Atorrasagasti Calcedo
Kultura Sustatzeko zuzendaria